

## Urrezko hazia

*CERATONIA SILIQUA* da algarrobondoa. Kultura atlantikoa dugu-nontzat, beste mundu bateko arbola. Hura ezagutuz gero, kultura mediterraneotik tira beste aukerarik ez dugu. *Ceratonía* izena arabierazko *querat* edo grekozko *kéras* hitzetik dator; arabiar hitzak pisu txikia adierazten du –hazia pisu neurria zen; hortik kilatea– eta grekoak adarra, fruitu duen lekaren formagatik.

*Siliqua* abizenak ere badu bada saltsa. Silikua, bere horretan, fruitu mota baten izen botanikoa da. Era horretako fruitua ematen duen landare familia ezagunena garai batean Gurutzedunena eta egun Brassicaceae deitzen dena da (arbia, aza, koltza...). Algarrobondoak leka erakoa du fruitua, leka lea du hazia. Silikuarik ez. Nondik, bada, *siliqua* abizen hori?

Silikua garai bateko Erromako txanpon bat zen. Baita pisu neurria ere. Biei algarrobondoaren hazitik zetorkien izena, hura bai zen silikua. Silikua batek 0,185 eta 0,19 gramo arteko pisua du. 1.728 silikuarekin osatzen zen erromatar libra, zuritutako 6.912 garagar alee-kin bezala. Lau garagar ale silikua-

ko. Pisutik dator txanpona. Urretan silikuaren pisu hori zuen txapona ere silikua bat zen. Bizantziarrek eutsi zioten pisu neurri horri.

Hazia, pisua eta txanponaren nahaste-borras-te horri arabiar batek eman zion erramua: Abd al-Malik kalifa omeiak 696. urtean lehen diru sistema arabiarra abiarazi zuen, kilatea, silikuaren pisua, normalizatuz.

Algarrobo izena, berriz, hispanoarabiar *alḥarrūba*-tik, zein arabiar klasikoko *ḥarrūbah* edo *ḥarnūbah*, bietako batetik, eta horiek persierako *ḥar lup*-etik baitatozen. Azkeneko hasierako horrek “asto matrailezurra” adierazten du. Lekaren antzagatik ote?

Horra Mediterraneo alde horretako anabasa. Arabiarrak, omeiak, grekoak, erromatarrak, bizantziarrak, pertsiarak... Azkenean kilatea nagusi. Baina algarrobondoak badu bestelako aberastanik ere: leka bazka bikaina da, azukreak eta goma ditu eta txokolatearen ordezkoko bat egiteko edo



GIANCARLO DESSI-CC BY SA

Algarrobondoa (*Ceratonía siliqua*).

alkohola sortzeko gaia da. Tunisian *cidre* (sagardoa) deitzen dioten edari bat egiten dute. Haziak Ingalaterran gozoki gisa saldu izan dira, baita kafearen ordezkoko bezala ere. Aleon irina ona da diabetesa dutenentzat bezala haurrentzat. Haren zura altzariak egiteko ona. Zura, leka, hazia... eta lorea ezin ahaztu: arbola ar eta emeak daude, eta, arraren loreak nolako usaina duen?

Sudurraren arabera, gizonaren esperma-rena edo ustel usaina. Zakilizaleentzat. ■



## Izotza eta eguzkia, aurkariak

GEZURRA badirudi ere, izotzak harrapatu duen sail batean izan litekeen aurkaririk handiena eguzkia da. Izotzak landarearen gainean eta barruan urak izoztu eta hormatu ditu. Zuzenean lehenengo eguzkiak jotzen badu izotza bat-batean urtuko da, landareari egokitzeko denborarik eman gabe. Landareak izotz hormatik eguzkitara igarotzeko denbora tarte bat izatea askoz ere hobea da, tenperatura aldea eta ura izotz izatetik urtzerako tarteko aldaketa hobeto eramango baitu. Hotzarekiko landare sentiberenak, minberenak, ez jarri goizeko lehen eguzkiak harrapatuko dituen tokian. Izotzetik eguzkitarako bat-bateko aldaketarekin gehiago sufrutuko dute. Geroxeago eguzkiak joko dituen tokian jarri, giro aldaketa xamurragoa den tokian. ■